



FAMILIA BITARTEKARITZAKO, BITARTEKARITZA ZIBILEKO ETA TESTUINGURU BATERAGARRIETARAKO ETENGABEKO PRESTAKUNTZAREN

1. IKASTAROA 2021

1. modulua: 23 ordu
1+2 moduluak: 60 ordu



Aurkibidea

Aurkezpena	3
Ikastaroaren edukia	3
Ikastaroaren ezaugarriak	4
Baldintza, izen ematea eta prezioa	4
Programa	6
23 orduko modulua	7
37 orduko modulua	9
Hizlarien biografiak	13



Aurkezpena

Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestuak, Justizia Ministerioko Bitartekarien eta Bitartekaritza Erakundeen Erregistroan inskribatutako Bitartekaritza Erakundea, eta Euskadiko Birgizarteratze Institutuak atseginez gonbidatzen zaituzte Familia Bitartekaritzako, Bitartekaritza Zibileko eta Testuinguru Bateragarrietarako Etengabeko Prestakuntzaren lehen edizioan parte hartzera (2021ean antolatua).

Ikastaroa horretarako prestakuntza duten edo bitartekari gisa lan egiten duten profesionalei bideratuta dago, baita, hala izan gabe, espezialitate horrekin lotutako edo beren jardunean eragiten duten arloekin lotutako edukietan eta berritasunetan ezagutzak bereganatu edo areagotu nahi dituztenei ere.



Ikastaroaren edukia

Familia Bitartekaritzako, Bitartekaritza Zibileko eta Testuinguru Bateragarrietarako Etengabeko Prestakuntzaren 1. ikastaroan, gatazkak konpontzeko bitarteko egokiak sustatzeko aurreikusi diren **araudi-berritasunak jorratuko dira, baita neurri horien aplikagarritasun praktikoa ere, hainbat arlotan (merkataritzan, bankuan, jabetza horizontalean, jaraunspenean, errentamenduan...), eta familian bereziki.** Era berean, ikastaroan bitartekaritzaren esparruan aplikatzen diren eta eragina **duten esku hartzeko teknikak eta praktikak** jorratuko dira, hainbat espezialitate profesionaletatik jaiotzen direnak: **Mindfulness teknikak, epe laburrera posizionamendua desblokeatzeko teknikak, estres-egoeretan emozioei eusteko teknikak...**

Horrez gain, **eta prozesu horietan teknologia berriak aplikatzearen** gaur egungo premiara egokituz, prestakuntzak bere lekua ematen dio horien eraginari. Horrela, bada, **istema** telematikoetako komunikazio-teknikei edo plataforma informatikoen esparruan datuak babesteari buruzko hitzaldiak eskainiko dira.

Bestalde, bereziki nabarmenduko dira bitartekariari bere lana testuinguruaren ezagutza zabalagoarekin garatzen lagunduko dioten edukiak, Familia Bitartekaritzarekin ezinbestean lotuta daudenak: adingabea

banaketaren esparruan eta familia-bitartekaritzaren esparruan, helduaren psikologia banaketaren esparruan, gatazka larriko egoeran dauden familiak, gurasotasunaren koordinazioa, zaintza partekatua, generoa-berdintasuna-familia, bitartekaritza harreman asimetrikoetan...

Azkenik, familia-bitartekaritzarekin oso lotuta dauden beste gai batzuk jorratuko ditugu, hala nola justizia errestauratiboaren kontzeptua, zigor-arlotik haratago, haren prozesuak familiaren esku-hartze esparruan, edo genero-indarkeria eta bitartekaritza, besteak beste.

Ikastaroa osatzeko, aurrez aurreko prestakuntza praktikoko 5 edo 10 ordu egingo dira (aukeratutako modalitatearen arabera), Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestuaren egoitzan.

Beraz, bitartekariari **diziplina anitzeko prestakuntza** eskaini ahal izatea da ikastaroaren asmoa, bere jardueraren alderdi teknikoetan sakonduz, bere begirada eguneratzeko eta modu batera edo bestera bitartekaritzaren jardunean eragiten duten beste ezagutza-eremu batzuetara zabaltzeko.



Ikastaroaren ezaugarriak

Ikastaroak bi modulu ditu:

- **23 orduko modulua** (15 ordu teoriko eta 8 ordu praktiko, autoprestakuntzarako 3 ordu barne).
- **60 orduko modulua** (47 ordu teoriko eta 13 ordu praktiko gehigarri, autoprestakuntzarako 3 ordu barne)



Covid-19ak eragindako arazoak direla eta, ordu teorikoak **telematikoki emango dira**, streaming bidez edo aurrez grabatuta. Hitzaldiak **Microsoft Teams** sistemaren bidez eskainiko dira. **Prestakuntza teorikoa 2021eko urriaren 19tik abenduaren 2ra** bitartean eskainiko da, aste bakoitzeko **astearte eta ostegunetan, 15:00etatik 19:00etara**.

Dagokion prestakuntzarako aurrez zehaztutako orduetan parte hartzeko aukerarik ez duten ikasleen kasuan, **hitzaldiak grabatu eta haien eskura jarriko dira** horretarako prestatutako plataforman, ikastaroak irauten duen bitartean. Horretarako, dagokion esteka helaraziko zaie ikasleei.

Prestakuntza praktikoa aurrez aurre egingo da, **Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestuaren egoitzan**, erantsitako egutegian zehaztutako egunetarako osasun-agintariek ezarri dituzten afororirizpideak eta -gomendioak kontuan hartuta (azaroaren 9an eta 11n, 09:00etatik 14:00etara).

Baldintza, izen ematea eta prezioa

PRECIO MATRÍCULA

23 orduko modulua

ICAGIko elkargokide edo IRSE-EBI institutuko kide diren ikasleak: **80 €**

Gainerako ikasleak: **120 €**

60 orduko modulua

ICAGIko elkargokide edo IRSE-EBI institutuko kide diren ikasleak: **150 €**

Gainerako ikasleak: **180 €**

ICAGI-REN KONTU KORRONTEA:

ES80 0138 0001 1401 0091 0223

(Diru-sarrera egitean, adierazi izen osoa, ikastaroaren izena eta modulua, mesedez. Ikastaroa hasi ondoren ez da matrikularen zenbatekoa itzuliko)

IZEN EMATEKO EPEA

2021eko irailaren 13tik irailaren 13ra



LEKUA

Ikastaroak **150 pertsonentzako lekua izango du gehienez.**

Lekua hartzeko, matrikularen zenbatekoa ordaindu beharko da ICAGIren kontuan.

IZEN EMATEKO ESTEKA

[EMEN SAKATU](#)

BERTAN BEHERA UZTEA ETA ALDAKETAK

ICAGIk eta IRSE-EBIk ikastaroa bertan behera uzteko eskubidea izango dute hura bideragarria izateko matrikulazio-baldintzak betetzen ez badira.

Kasu horretan, matrikulen zenbatekoak itzuliko zaizkie dagoeneko izena eman duten pertsoneri.

ICAGIk eta IRSE-EBIk ikastaroko edukien edo hizlarien aldaketa puntualak egiteko eskubidea izango dute, erakundeari ez dagozkion arrazoiak direla eta, hala egin behar badira, eta interes bereko beste batzuekin ordezkatzuko dituzte.



PROGRAMA



23 Orduko modulua

1. JUSTIZIA ZERBITZU PUBLIKOAREN ERAGINKORTASUN PROZESALEKO NEURRIEN LEGE AURREPROIEKTUA (8 ordu)

Urriaren 19tik 21era.

Hizlariak: Lourdes Fernández Manzano – M^a José Peral González

- Zioen azalpena (ordu 1)
- Eztabaidak konpontzeko bitarteko egokiak (ordu 1)
- Eraldaketa digitala (ordu 1)
- Zuzenbide konparatua (ordu 1)
- Lege prozesalen aldaketa (3 ordu)
- Azken xedapenak (ordu 1)

2. BITARTEKARITZA – TESTUINGURU BATERAGARRIAK (4 ordu)

Urriak 26

Hizlariak: Lourdes Fernández Manzano – M^a José Peral González – Alvaro López Berdoces

- Sozietate-bitartekaritza (ordu 1)
- Bitartekaritza familia-enpresetan (ordu 1)
- Bitartekaritza eta Jabetza Horizontalaren Legea (ordu 1)
- Errentamendu-bitartekaritza (ordu 1)

3. BITARTEKARITZA ETA AKORDIOEN IZAERA JURIDIKOA (3 ordu)

Urriak 28

Hizlariak: Lourdes Fernández Manzano – M^a José Peral González

- Ordainketen judizioz kanpoko akordioa edo konkurtso-bitartekaritza (2 ordu)
- Bitartekaritza-akordioa eta hitzarmen arautzailea (ordu 1)

4. AURREZ AURREKO PRAKTIKAK. ICAGIREN EGOITZAN (5 ordu)

Azaroak 9

Hizlaria: Alvaro López Berdoces



NORBERAK KUDEATUTAKO PRAKTIKA ARRUNTAK (3 ordu)

23 ORDUKO MODULUA

1. KAPITULUA: JUSTIZIA ZERBITZU PUBLIKOAREN ERAGINKORTASUN PROZESALEKO NEURRIEN LEGE AURREPROIEKTUA (8 ORDU)

DATA	EPIGRAFEA	ORDUAK	HIZLARIA	ERAKUNDEA	ORDUTEGIA
Urriak 19	ZIOEN AZALPENA	1	LOURDES FERNÁNDEZ	ICAGI	15:00 - 16:00
	EZTABAIDAK KONPONTZEKO BITARTEKO EGOKIAK	1	LOURDES FERNÁNDEZ	ICAGI	16:00 - 17:00
	ERALDAKETA DIGITALA	1	LOURDES FERNÁNDEZ	ICAGI	17:00 - 18:00
	ZUZENBIDE KONPARATUA	1	LOURDES FERNÁNDEZ	ICAGI	18:00 - 19:00
Urriak 21	LEGE PROZESALEN ALDAKETA	3	M ^a JOSE PERAL	ICAGI	15:00 - 18:00
	AZKEN XEDAPENAK	1	M ^a JOSE PERAL	ICAGI	18:00 - 19:00

2. KAPITULUA: BITARTEKARITZA – TESTUINGURU BATERAGARRIAK (4 ORDU)

DATA	EPIGRAFEA	ORDUAK	HIZLARIA	ERAKUNDEA	ORDUTEGIA
Urriak 26	SOZIALTE- BITARTEKARITZA	1	ÁVARO LÓPEZ	ICAGI	15:00 - 16:00
	BITARTEKARITZA FAMILIA-ENPRESETAN	1	ÁLVARO LÓPEZ	ICAGI	16:00 - 17:00
	BITARTEKARITZA ETA JABETZA HORIZONTALAREN LEGEA	1	LOURDES FERNÁNDEZ	ICAGI	17:00 - 18:00
	ERRENTAMENDU- BITARTEKARITZA	1	M ^a JOSE PERAL	ICAGI	18:00 - 19:00

3. KAPITULUA: BITARTEKARITZA ETA AKORDIOEN IZAERA JURIDIKOA (3 ORDU)

DATA	EPIGRAFEA	ORDUAK	HIZLARIA	ERAKUNDEA	ORDUTEGIA
Urriak 28	ORDAINKETEN JUDIZIOZ KANPOKO AKORDIOA EDO KONKURTSO- BITARTEKARITZA	2	M ^a JOSE PERAL	ICAGI	15:00 - 17:00
	BITARTEKARITZA- AKORDIOA ETA HITZARMEN ARAUTZAILEA	1	LOURDES FERNÁNDEZ	ICAGI	17:00 - 18:00

4. KAPITULOA: AURREZ AURREKO PRAKTIKAK. ICAGIREN EGOITZAN (5 ORDU)

DATA	EPIGRAFEA	ORDUAK	HIZLARIA	ERAKUNDEA	ORDUTEGIA
Azaroak 9	AURREZ AURREKO PRAKTIKAK. ICAGIREN EGOITZAN	5	ÁLVARO LÓPEZ	ICAGI	09:00 - 14:00
-	NORBERAK KUDEATUTAKO FAMILIA- BITARTEKARITZAKO PRAKTIKAK	3	-	-	-

37 orduko modulua

5. GENEROA, BERDINTASUNA, FAMILIA, BITARTEKARITZA (8 ordu)

Azaroaren 2tik 4ra

Hizlariak: Raquel Royo Prieto, Teresa Peña Ruiz de Arcaute, Lourdes Lorente Diharce, Ana Luz Uña Alfonso, Jose Ignacio Martínez Ruiz, Gema Varona Martínez

- Generoa, berdintasuna eta familia (2 ordu)
- Mindfulness teknika eta erabateko arreta (2 ordu)
- Zaintza partekatua. Begirada psikosoziala eta juridikoa (2 ordu)
- Familia-harremanak zaintza partekatuan. Familia-erantzukizun koordinatua eta kooperatiboa (ordu 1)
- Familia-bitartekaritza eta genero-indarkeria (ordu 1)



6. BITARTEKARITZA – TESTUINGURU BATERAGARRIAK (4 ordu)

Azaroak 16

Hizlariak: Lourdes Fernández Manzano – M^a José Peral González

- Enpresen arteko bitartekaritza (ordu 1)
- Bitartekaritza irabazpideko likidazioan (ordu 1)
- Jaraunspen-bitartekaritza (ordu 1)
- Banku-bitartekaritza (ordu 1)

7. ESKU HARTZEKO TEKNIKAK (6 ORDU)

Azaroaren 18tik 23ra.

Hizlariak: Cristina Merino Ortiz, Lourdes Lorente Diharce, Susana Asua Alvarez, Angel Estalayo Hernández, Alberto José Olalde Altarejos

- Bitartekaritza harreman asimetrikoetan (2 ordu)
- Komunikazio-teknikak sistema telematikoetan (ordu 1)
- Plataforma informatikoak eta datuen babesa (ordu 1)
- Estres-egoeretan emozioei eustea (ordu 1)
- Epe laburrera posizionamendua desblokeatzeko teknikak (ordu 1)
- Técnicas de desbloqueo de posicionamiento a corto plazo (1 hora)

8. BITARTEKARITZA – TESTUINGURU BATERAGARRIAK III (10 ORDU)

Azaroaren 23tik 30era.

Hizlariak: Alba Pérez Enriquez, Elena Ayarza Elorriaga, Idoia Pérez Araiz, Grego Mendiguren Barandiaran, Ainhoa García Agirre, Olga Rodríguez Ochoa, Antonio Perdices Mañas, Jon Goikoetxea Bilbao

- Adingabea bikotea banatzen denean (2 ordu)
- Adingabea familia-bitartekaritzan (2 ordu)
- Helduen psikologia bikotea desegiten denean (2 ordu)
- Gipuzkoako gizarte-politika arloko prestazioak (ordu 1)
- Psikopatologia eta eztabaidak konpontzeko bitarteko egokiak (ordu 1)
- Gurasotasunaren koordinazioa edo etengabeko bitartekaritza-prozesuak (ordu 1)
- Gatazka larrian dauden familiak. Elkarguneak (ordu 1)

9. FAMILIA-BITARTEKARITZATIK HARATAGO (4 ordu)

Abenduak 2

Hizlariak: Roberto Moreno Alvarez, Sofía Escobar Campo, Jose Ignacio Martínez Ruiz

- Justizia Errestauratiboa. Zigor-arlotik familiara (ordu 1)
- Familia-arloko leheneratze-prozesuak (ordu 1)
- Esku-hartze leheneratzailea. Zigor-arlotik haratago (ordu 1)
- Prestakuntzari buruzko ondorioak eta itxiera (ordu 1)

10. AURREZ AURREKO PRAKTIKAK. ICAGIREN EGOITZAN (5 ordu)

Azaroak 11

Hizlaria: Angharad Díez Díez



37 ORDUKO MODULUA

5. KAPITULUA: GENEROA, BERDINTASUNA, FAMILIA, BITARTEKARITZA (8 ORDU)

DATA	EPIGRAFEA	ORDUAK	HIZLARIA	ERAKUNDEA	ORDUTEGIA
Azaroak 2	GENEROA, BERDINTASUNA ETA FAMILIA	2	RAQUEL ROYO	U. DEUSTO	15:00 - 17:00
	MINDFULNESS - ERABATEKO ARRETA	2	TERESA PEÑA	IRSE - EBI	17:00 - 19:00
Azaroak 4	ZAINTZA PARTEKATUA. BEGIRADA PSIKOSOZIALA ETA JURIDIKOA	2	LOURDES LORENTE - ANA LUZ UÑA	IRSE - EBI	15:00 - 17:00
	ZAINTZA PARTEKATUA. ERANTZUKIZUN PARTEKATUA	1	NACHO MARTÍNEZ	IRSE - EBI	17:00 - 18:00
	FAMILIA-BITARTEKARITZA ETA GENERO-INDARKERIA	1	GEMA VARONA	IVAC - KREI UPV/EHU	18:00 - 19:00

6. KAPITULUA: BITARTEKARITZA – TESTUINGURU BATERAGARRIAK II (4 ORDU)

DATA	EPIGRAFEA	ORDUAK	HIZLARIA	ERAKUNDEA	ORDUTEGIA
Azaroak 16	ENPRESEN ARTEKO BITARTEKARITZA	1	LOURDES FERNÁNDEZ	ICAGI	15:00 - 16:00
	IRABAZPIDEKO LIKIDAZIOA	1	LOURDES FERNÁNDEZ	ICAGI	16:00 - 17:00
	JARAUNSPEN-BITARTEKARITZA	1	M ^a JOSE PERAL	ICAGI	17:00 - 18:00
	BANKU-BITARTEKARITZA	1	M ^a JOSE PERAL	ICAGI	18:00 - 19:00

7. KAPITULUA: ESKU HARTZEKO TEKNIKAK (6 ORDU)

DATA	EPIGRAFEA	ORDUAK	HIZLARIA	ERAKUNDEA	ORDUTEGIA
Azaroak 18	BITARTEKARITZA HARREMAN ASIMETRICOETAN	2	CRISTINA MERINO	SER.MED.FAM	15:00 - 17:00
	KOMUNIKAZIO-TEKNIKAK SISTEMA TELEMATIKOETAN	1	LOURDES LORENTE	IRSE - EBI	17:00 - 18:00
	PLATAFORMA INFORMATIKOAK ETA DATUEN BABESA	1	SUSANA ASUA	ICAGI	18:00 - 19:00
Azaroak 23	ESTRES-EGOERETAN EMOZIOEI EUSTEA	1	ÁNGEL ESTALAYO	IRSE-EBI	15:00 - 16:00
	EPE LABURRERA POSIZIONAMENDUA DESBLOKEATZEKO TEKNIKAK	1	ALBERTO OLALDE	UPV/EHU	16:00 - 17:00

37 ORDUKO MODULUA

CAPÍTULO 8: BITARTEKARITZA – TESTUINGURU BATERAGARRIAK III (10 ORDU)

DATA	EPIGRAFEA	ORDUAK	HIZLARIA	ERAKUNDEA	ORDUTEGIA
Azaroak 23	ADINGABEA BIKOTEA BANATZEN DENEAN	2	ALBA PÉREZ	IRSE - EBI	17:00 - 19:00
Azaroak 25	ADINGABEA FAMILIA-BITARTEKARITZAN	2	ELENA AYARZA - IDOA PÉREZ	ARARTEKO - IRSE - EBI	15:00 - 17:00
	HELDUEN PSIKOLOGIA BIKOTEA DESEGITEN DENEAN	2	GREGO MENDIGUREN	IRSE - EBI	17:00 - 19:00
Azaroak 30	GIPUZKOAKO GIZARTE-POLITIKA ARLOKO PRESTAZIOAK	1	AINHOA GARCÍA	IRSE - EBI	15:00 - 16:00
	PSIKOPATOLOGIA ETA EZTABAIDAK KONPONTZEKO BITARTEKO EGOKIAK	1	OLGA RODRÍGUEZ	IRSE - EBI	16:00 -17:00
	GURASOTASUNAREN KOORDINAZIOA EDO ETENGABEKO BITARTEKARITZA-PROZESUAK	1	ANTONIO PERDICES	IRSE - EBI	17:00 -18:00
	GATAZKA LARRIAN DAUDEN FAMILIAK. ELKARGUNEAK	1	JON GOIKOETXEA	BIZGARRI	18:00 -19:00

9. KAPITULUA: FAMILIA-BITARTEKARITZATIK HARATAGO (4 ORDU)

DATA	EPIGRAFEA	ORDUAK	HIZLARIA	ERAKUNDEA	ORDUTEGIA
Abenduak 2	JUSTIZIA ERRESTAURATIBOA. ZIGOR-ARLOTIK FAMILIARA	1	ROBERTO MORENO	ARARTEKO IRSE - EBI	15:00 - 16:00
	FAMILIA-ARLOKO LEHENERATZE-PROZESUAK	1	SOFÍA ESCOBAR	IRSE - EBI	16:00 - 17:00
	ESKU-HARTZE LEHENERATZAILEA. ZIGOR-ARLOTIK HARATAGO	1	NACHO MARTÍNEZ	IRSE - EBI	17:00 - 18:00
	ONDORIOAK ETA ITXIERA	1	ICAGI - IRSE - EBI	ICAGI - IRSE - EBI	18:00 - 19:00


10. KAPITULUA: FAMILIA-BITARTEKARITZAKO AURREZ AURREKO PRAKTIKAK ICAGIN (5 ORDU)

DATA	EPIGRAFEA	ORDUAK	HIZLARIA	ERAKUNDEA	ORDUTEGIA
Azaroak 11	FAMILIA-BITARTEKARITZAKO AURREZ AURREKO PRAKTIKAK ICAGIN	5	ANGHARAD DíEZ	IRSE - EBI	09:00 - 14:00

HIZLARIAK



AYARZA ELORRIAGA, Elena.
ARARTEKO. HAUR ETA NERABEENTZAKO BULEGOA.



Psikologian lizentziatua. Ibilbide luzea du gizarte-zerbitzuen esparruan eta gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzean, gizarte-ekimenaren bidez eta administrazio publikoan garatua. Arartekoko Haur eta Nerabeentzako Bulegoko arduraduna da 2010etik. Bertan, haur eta nerabeen eskubideak presente egon daitezela bermatzen saiatzen da, erakundearen beraren estrategian eta jardueretan, nahiz hark ikuskatzen dituen erakundeetan.

DÍEZ DÍEZ, Angharad
IRSE-EBI



Zuzenbidean lizentziatu nintzen Deustuko Unibertsitatean, eta haur eta familien zuzenbidean eta familia-bitartekaritzan prestatu naiz, zuzenbideko, psikologiako eta gizarte-laneko fakultateetan hainbat master eginda. Bitartekari gisa egin dudana ibilbidean, Enkarterriko Mankomunitatean eta Eusko Bitartekaritza Elkartearen lan egin dut, eta, Garrebil aholkularitza-enpresarekin elkarlanean, Estatu osoko profesionalak prestatu ditut bitartekaritza zibilaren eta merkataritza-bitartekaritzaren arloetan. 2018tik, bideratzailea eta bitartekaria naiz Eusko Jaurlaritzaren Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuan.

ESCOBAR CAMPO, Sofía.
IRSE-EBI



Zuzenbidean lizentziatua, Euskal Herriko Unibertsitatean. Eusko Jaurlaritzaren Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuko bideratzailea eta bitartekaria. Jarduneko abokatu Arabako Abokatuen Elkarte Ohoretsuan. Familia-zuzenbidean eta zigor-zuzenbidean espezializatua. Bitartekaritza zibilean eta merkataritza-bitartekaritzan aditua, Espainiako Abokatzaren Kontseilu Nagusiaren tituluduna. Justizia Ministerioko bitartekariaren erregistroan eta Eusko Jaurlaritzako bitartekariaren erregistroan inskribatutako bitartekaria. Harvard negoziazioan aditua, Madrilgo Carlos III Unibertsitatearen bitartez. Eskola-bitartekaritzan aditua, ISFAP goi-mailako institutuaren bitartez. Egokitzapen pedagogikorako ikastaroan titulua, Euskal Herriko Unibertsitatean..

ESTALAYO HERNANDEZ, Ángel
IRSE-EBI



Gizarte-zientzietan doktorea. Pedagogian eta Psikopedagogian lizentziatua. Gizarte Hezkuntzan gaitua. Haur eta nerabeen psikoterapian eta psikopatologian masterra, Denbora mugatuko psikoterapian eta osasunaren psikologian masterra, eta Nortasunaren nahasmenduetan aditua. MBT, MBT-A eta MBT-F (Mentalization based treatment for adolescents and for families), AMBIT (Londresko Anna Freud Centre). Irakaslea honako hauetan: Adingabeak gizartean babesik gabe eta/edo gatazkan daudenean esku hartzeko eta bitartekotza egiteko masterrean, eta Gizartean kalteberatasun- eta bazterketa-egoeran dauden pertsonen artean esku hartzeko masterrean (Deustuko Unibertsitatea); Suizidiologia aditu-tituluan (EHU); Egoitza-harreran dauden haur, nerabe eta gazteen gizarte- eta hezkuntza-ekintzako aditu-tituluan (UMA); Laguntza-psikoterapiako aditu-tituluan (Ramon Lull Unibertsitatea); eta Baliozko Lotura Emozionaleko (VEV) laguntza-psikoterapian esku hartzeko graduondoan (ADP-CETS). IRSE-EBIko zuzendari teknikoa. ADP-CETSeko (Hezkuntza-, terapia- eta gizarte-testuinguruetan psikoterapia garatzeko elkarte) presidentea.

FERNÁNDEZ MANZANO, Lourdes
Jarduneko abokatua



ICAGIko elkargokidea duela 15 urtetik baino gehiagotik. Bitartekari pribatua eta gatazken ebazpen alternatiborako Signum Notario Fundazioko kolaboratzailea. 2013tik gaur arte. Gipuzkoako eta Arabako Finka Administrazioaren Lurralde Elkargoko bitartekaritza-zerbitzuko batzorde iraunkorreko presidentea. 2020ko urritik gaur arte. Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi barruko Bitartekaritza Zibileko lehen proiektuaren koordinatzaile eta bitartekaria, Signum Notario Fundazioak kudeatua, Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako hitzarmen baten esparruan. 2016ko irailetik 2019ko irailera. Bitartekaria Eusko Jaurlaritzaren Auzitegi barruko Bitartekaritza Zerbitzuan. 2012ko ekainetik 2013ko abendura.

GARCIA AGIRRE, Ainhoa
IRSE-EBI



Gizarte-lanean diplomaduna. Haurren babesean aditua. Kulturarteko bitartekaritza masterra. Familia Bitartekaritza eta Gatazken Konponketan unibertsitate-aditua. Biktimologian unibertsitate-aditua. Esperientzia hainbat esku-hartze eremutan: haurrak, gazteak, gizarte-bazterkeria eta indarkeria matxistaren biktimak. Gaur egun, gizarte-langilea da Donostiako Biktimari Laguntzeko Zerbitzuan.

GOIKOETXEA BILBAO, Jon
BIZGARRI ELKARTEA



Psikologian lizentziatua Deustuko Unibertsitatean. Marhum masterra pertsonen kudeaketan (EHU). Bitartekaritza eta Gatazken Konponketan masterra (UAB). Gurasotasunaren koordinazioan aditua (UCM). Bilboko, Durangoko, Gernikako, Donostiako eta Tolosako familia-elkarguneetako koordinatzailea 2002. urtetik.

LÓPEZ BERDONCES, Álvaro.
Jarduneko abokatua



ICAGIko abokatu elkargokidea. Zuzenbide Ekonomikoan lizentziatua, Deustuko Unibertsitatean. Justizia Ministerioak gaitutako bitartekaria 2013tik. Zallako Udaleko Bitartekaritza Zerbitzuko arduraduna 2015era arte. Bitartekaritza-arloko prestatzailea hainbat elkargo profesionaletan. ICAGIko Bitartekaritza Batzordeko kidea. Eusko Bitartekaritza Elkarteko (Bitarbask) kidea. Hizlaria Bitartekaritzari buruzko I. Estatu Kongresuan (2014) eta hizlaria ICAGIren Bitartekaritzari buruzko I. jardunaldian (2013). ¿Cómo mediar en asuntos civiles y mercantiles? liburua idazle eta argitaletxea. 2013.



LORENTE DIHARCE, LOURDES.
IRSE-EBI.

Gizarte-langilea, Deustuko Unibertsitatearen aldetik. Emakumearen aurkako indarkerian esku hartzeko masterra. Bikote arteko gatazketan aditua. Bitartekaria. Irakasle gonbidatua Emakumearen aurkako indarkerian esku hartzeko masterrean eta Familia-bitartekaritzako masterrean, biak Deustuko Unibertsitatean. Irakasle gonbidatua Esperientzia traumatikoetako biktimekin lan egiteko masterrean. Komunikatzailea hainbat komunikabidetan. Biktimen arreta-zerbitzuko zuzendari teknikoa IRSE-EBIn. Eusko Jaurlaritzaren Biktimari Laguntzeko Zerbitzuko koordinatzailea.

MARTINEZ RUIZ, Jose Ignacio
IRSE-EBI



Zuzenbidean lizentziatua, Deustuko Unibertsitatean. Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuko abokatua. Euskadiko Birgizarteratze Institutuko (IRSE-EBI) legelaria. Bideratzaile tituluduna. Bitartekaria. Legelari gisa lan egin du Eusko Jaurlaritzaren Biktimari Laguntzeko Zerbitzuan eta Eusko Jaurlaritzaren Zigorren Kudeaketa Zerbitzuan, eta Eusko Jaurlaritzaren Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuko koordinatzailea da, denak IRSE-EBIk kudeatuak.

MENDIGUREN BARANDIARÁN, Gregoria
IRSE-EBI



Psikologian lizentziatua (Madrilgo Complutense Unibertsitatea eta Genevako Unibertsitatea), Psikologia Klinikoan IAD (Genevako Unibertsitatea) eta Gizarte Psikologian IAD (EHU). Prestakuntza Zigor eta Familia Bitartekaritzan (AIEEF), Genero eta Familia barruko Indarkerian, Sexu Abusuetan, Haur eta helduen psikologia klinikoan, eta biktimologiarekin lotutako beste gai batzuetan. Irakasle kolaboratzailea EHuko "Dibortzioa eta Banaketa Unibertsitate Aditua" graduondoko ikastaroan, eta 2007tik gaur arte, EHuko "Esperientzia Traumatikoen Biktimentzako Laguntza" graduondoko tituluan. 1996tik, psikologo klinikoa da Donostiako Biktimari Laguntzeko Zerbitzuan.

MERINO ORTIZ, Cristina
EUSKO JAURLARITZAREN FAMILIA BITARTEKARITZA ZERBITZUA



Eusko Jaurlaritzaren Familia Bitartekaritza Zerbitzua, 1998-2021. Psikologian doktorea. Abokatua eta bitartekaria. Kriminologian unibertsitate-graduondoa. Drogomendekotasunetan unibertsitate-graduondoa. Taldeko Dinamika Orokorretan eta Psikodraman aditua. Gatazken azterketa eta kudeaketa-prozesuetan irakaslea EHU, Deustuko Unibertsitatean eta beste hainbat unibertsitatetan, elkargo profesionaletan, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusian eta Administrazio Publikoan. Talde handietako metodologiaren bideratzailea. GEMME eta ACR (Association for Conflict Resolution) erakundeetako kidea. Argitalpenak gatazken kudeaketa arloan.



MORENO ALVAREZ, Roberto
JUSTIZIAREN ETA ESPETXERATUEN KOORDINATZAILEA. ARARTEKO.

Roberto Moreno Arartekoko justizia, espetxeratu eta terrorismoaren biktimen arduraduna da. 2019ra arte, Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Justizia Saileko Helduen Justizia Zerbitzuko arduraduna izan zen, eta Justizia Errestauratiboaren Zerbitzua koordinatu zuen, baita Biktimari Laguntzeko Zerbitzua eta Zigorrek Kudeatzeko Euskal Zerbitzua ere. 15 urteko esperientzia du espetxean dauden presoek eskubideak defendatzen, lege-aholkularitzan, espetxeko bisitetan eta hainbat mugimendu zibil eta GKEtan haien eskubideak defendatzen. Justizia Errestauratiboaren Europako Foroko Zuzendaritza Batzordeko kide izan da (2014-2020). Zuzenbidean lizentziatua da eta abokatutza eta aholkularitza juridikoan master bat du unibertsitate berean. Prestakuntza teorikoa eta praktikoa du zigor-arloko bitartekari eta bideratzaile gisa, eta justizia errestauratiboari buruzko argitalpen eta artikulu ugari ditu.

OLALDE ALTAREJOS, Alberto José
UPV-EHU



Esku-hartze sozialean eta bitartekaritzan doktorea. Gizarte-langilea, Kriminologian masterra, Gatazken kudeaketa eta ebazpena: bitartekaritza masterra, eta Bitartekaritzari buruzko Europako masterra. Gizarte Langintzako irakaslea da EHU-n. Familia-bitartekaria (Eusko Jaurlaritzaren Erregistroa) eta bitartekaria (Justizia Ministerioaren Erregistroa). Esperientzia du justizia barruko prozesu errestauratiboetako bideratzaile gisa, baita biktimizazio larriko testuinguruetan ere (sexuaren eta terrorismoaren testuinguruetan).



PERAL GONZÁLEZ, María José
Eki Asesoría y Formación S.L.U.


Abokatua, bitartekari zibila eta merkataritza-bitartekaria. Enpresa-aholkularia. PNL eta Adimen Emozionaleko irakasle partikularra. Prestakuntzak ematen ditu: ekintzaileentzako tailerra, gatazkek konpontzeko tailerrak eta enpresa-kudeaketan prestakuntza. www.ekiplanyaccion.com

PERDICES MAÑAS, Antonio José,
IRSE-EBI



ICABIko abokatua. IRSE-EBI institutuko letradua. Lege-laguntza errazteko ekintzak landu eta sustatzen ditu, herritarrek, eta bereziki, zaugarritasun-egoeran dauden kolektiboek beren eskubide eta askatasunen benetako babes judiziala eskuratu ahal izan dezaten. Justizia Ministerioaren Erregistroan inskribatuta dagoen bitartekaria. Bizkaiko Merkataritza Ganberako Arbitraje Gorteak eta Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuak gaitutako arbitroa. Emakumeen aurkako indarkerian esku hartzeko unibertsitate-masterra, Deustuko Unibertsitatean.

PÉREZ ENRÍQUEZ, Alba
IRSE-EBI



Laguntza goiztiarreko psikologo espezialista (UIMP), Gizarte Hezkuntzan diplomaduna eta Gizarte eta hezkuntzako esku-hartzea talde kaltetuetan graduondoa (EHU). Gaur egun, indarkeria matxistatik bizirik irten diren emakumeentzako eta haien seme-alabentzako berehalako harrera-zentro bateko zuzendaria da, IRSE-EBIn. Gainera, esperientzia handia du adingabeak babesten eta haur eta nerabeen oinarrizko baliabideetan, eta aditua da jarrera-arazo larriak dituzten adingabe atzeritarren esparruan.

RODRIGUEZ OCHOA, Olga
IRSE-EBI

Psikologoa, familia-psikoterapeuta eta FEAPek egiaztatutako haur eta gazteen psikoterapeuta; IRSE-EBIk kudeatutako Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarteratze Sailaren estrategia gazteko Beinke (Eguneko Zerbitzua eta Egoitza Baliabidea) Proiektuaren zuzendaria



ROYO PRIETO, Raquel
Deusto Unibertsitatea



Soziologian doktorea eta Gizarte Lanean diplomaduna. Irakaslea eta ikerlaria da Deustuko Unibertsitateko Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatean. Emakumeen aurkako indarkerian esku hartzeko unibertsitate-masterreko zuzendaria. Deustuko Gizarte Balioei buruzko taldeko kidea. Honako hauek dira bere espezializazio-ildo nagusiak: amatasunak, aitatasunak eta erantzunkidetasuna, eta balioak eta generoa.

RUIZ DE ARCAUTE, Teresa
IRSE-EBI

Teresa Peña Ruiz de Arcaute dut izena. Urte bat edo beste daramat, gaztea izan arren... ikasten eta zigortuta eta espetxeratuta dauden pertsoneri laguntzen. Orain, genero-indarkeriagatik zigortutako gizonak tratatzeko programan lan egiten dut IRSE EBI institutuak kudeatutako Zigorak Kudeatzeko Euskal Zerbitzuan (ZKEZ). Psikologiak, hezkuntzak eta pertsona bakoitzaren gaitasunekiko sinesmen sendoak bide horietatik errazago ibiltzen laguntzen didate. A! Eta sinesmen osoa daukat presentzian eta gupidan. Mindfulness deitzen dugun hori praktikatzen dut eta transmititu nahi dut.



UÑA ALFONSO, Ana Luz
IRSE-EBI

Jarduneko abokatua da, ICABiko bulego kolektiboan, 1992tik. Biktimari Laguntzeko Zerbitzuko legelaria da 2018tik. Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuko Orientazio Juridiko Zerbitzuko letradua izan da 2007tik 2013ra bitartean. Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuko Gobernu Batzordeko kidea da 2017tik



VARONA MARTÍNEZ, Gema
IVAC/KREI (UPV/EHU)



Gema Varona ikerlari iraunkorra da. Zuzenbidean doktorea da, eta Kriminologian diploma eta Soziologia Juridikoan masterra ditu. Irakaslea da ingelesez ematen diren Kriminologia graduko Politika Kriminaleko eta Biktimologiako irakasgaietan (UPV/EHU); era berean, "Biktimekin Lan Egitea" graduondoko zuzendarikidea eta Victimología/Journal of Victimology aldizkariaren koeditorea da. Biktimologiari buruzko Nazioarteko Sinposioaren tokiko koordinatzailea (Kursaal, 2022ko ekainaren 5etik 9ra).

